

Autoebaluazioa I ZATIA (1-5 ikasgaiak)

- 1.- Sendagai baten bilgarrian ondoko ikurra ▼ agertzen bada, zer esan nahi du?:
 - a) Estupefaziante da
 - b) Errezeta medikoa beharrezkoa da sendagaia erosteko.
 - c) **Jarraipen gehigarria egiten zaio farmakotzaintzari dagokionez.**
 - d) Hozkailuan gorde beha da.
 - e) Errezetagabeko sendagaia da.

- 2.- Farmakoaren banaketa-bolumenari dagokionez, zein da zuzena?:
 - a) Iraizketa-abiadura adierazten du.
 - b) **Farmako lipodisolbagarriek banaketa-bolumen handia daukate.**
 - c) Farmakoaren metabolismoaren adierazlea da.
 - d) Plasma-proteinekiko lotura handiko farmakoek banaketa-bolumen handia daukate.
 - e) Farmakoaren eraginkortasuna adierazten du.

- 3.- Farmako baten aho-bideko bioerabilgarritasuna %60koa da. Zer adierazten du honek?
 - a) **Administratzen den farmako kantitatetik, %60a heltzen dela zirkulazio orokorrera.**
 - b) Dosi batean, soilik %40a gai aktiboa dela.
 - c) Aho-bidetik hartuta, bide parenteraleko dosiaren %40a hartzea nahikoa dela.
 - d) Pazienteen %60ak ezin duela farmako hori aho-bidetik hartu.
 - e) Gibeletik pasatzen denean, farmakoaren %60a metabolizatzen dela.

- 4.- Onkoetatik, zein da faltsua?:
 - a) Muskulu-barneko bidez azalazpikoaz baino xurgapen azkarragoa lortzen da.
 - b) Lontoforesiak ionizatutako farmakoak sartzen ditu azalaren bidez, etengabeko korrante elektrikoa erabiliz.
 - c) Ultrasoinuaren bitartezko minaren kontrako farmakoen administrazioak eragin sinergikoa dauka.
 - d) Askapen modalgarria duten prestakizun farmazeutikoak ahozko bidez ematen dira.
 - e) **Ondeste bidea agure eta umeengan erabiltzen da soilik.**

- 5.- Farmakoen metabolismoaren helburu nagusia da:
 - a) Farmakoak aktibatzea.
 - b) Farmakoaren eraginkortasuna handitzea.
 - c) Farmakoaren iraizketa ekiditzea.
 - d) Farmakoaren potentzia handitzea.
 - e) **Aurreko bat ere ez.**

- 6.- Ondoko terminoetatik zein da farmakoaren potentziaren adierazlea?:
 - a) Eraginkortasun maximoa (Emax)

- b) Aklaramendua (Cl)
- c) **Dosi eraginkor 50a (DE_{50})**
- d) Erdi bizia ($t_{1/2}$)
- e) Kurbaren azpiko area (AUC)

7.- Farmako batek eragindako minbizia, zer eragin kaltegarri mota da?:

- a) A
- b) B
- c) C
- d) **D**
- e) E

8.- Fisioterapeutak elkarrekintza farmakologiko kaltegarri bat antzematen badu... :

- a) Pazienteari tratamendu farmakologikoa geldiaraziko dio.
- b) **Ahalik eta lasterren medikuarekin arremanetan jartzea gomendatuko dio.**
- c) Sendagaiaren dosia jaitea gomendatuko dio pazienteari.
- d) Ez du ezer egingo, tratamendu farmakologikoa ez da fisioterapeutaren ardura eta.
- e) Aurreko bat ere ez da zuzena.